

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2012ko UZTAILAREN 26an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2012ko uztailaren 26an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.40 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea
Aritz Usandizaga Larrañaga
Imanol Aranzabal Lasa
Karlos Irazu Muñoa


Bere ezin etorria azaltzen dute: Jon Tejeria Otermin

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udaltzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - **2012ko uztailaren 5ean egindako ohiko bilkura**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo Departamentuko idatziaren berri ematea, hala bada.**
- 4. Haurreskolak Partzuergoak igorritako idatziaren berri ematea, hala bada.**
- 5. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2012ko 1. Eta 2. Hiruhilabeteko ekarpenak burutzea, hala bada.**
- 6. Tolosaldeko Mankomunitateari 2. Seiuhilabeteko ekarpena burutzea, hala bada.**
- 7. Gure Ametsa 12-B etxe ondoan txabola bat egiteko obra baimena eskaera, E.A.O.**
- 8. 2011-2012 ikasturterako euskara ikastaroetako diru-laguntzen eskaeraren onespena, hala bada.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

9. Larraulgo eskolan egin behar diren hobekuntza lanen onespena, hala bada
10. Fakturak eta ordainketak.
11. Beste batzuk.
12. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2012 urteko uztailaren 5eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

11/2012 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 20koa, Karlos Irazu Muñoa zinegotziaren alde, Juan Asier Camino Iraola eta Ester Poveda Quiles arteko ezkontza zibila baimentzeko eskuordetza ematea, ebazten duena.

12/2012 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 26koa, 2012ko 2. hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira


HIRUGARREN PUNTUA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BERRIKUNTZAKO, LANDA GARAPENEN ETA TURISMO DEPARTAMENTUKO IDATZIAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamendutik igorritako idatzia, non ondorengoak dioen:

“Alkate agurgarria:

Ekainaren 14an bilera bat egin genuen zure udaletxean, ehiza-postuen egoera aztertzeko Larraulgoan.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizut zure laguntzagarritik bilera hori antolatzeke eta deitzeke.

Bilera horretan, gure aldetik, ehiza-postuak antolatzeke beharra azaldu genuen, Gipuzkoako beste eremuetan antolatu dugun moduan, ohiko pasabideetan uso migratzaileen ehiza arautzen duen 2007ko urriaren 25eko Foru Agindua aplikatuz.

Bileran gure interesa azaldu genuen bertako ehiztarien laguntza izateke, antolaketa hori egiterakoan. Horretarako, bertako ehiztarietara eskatu genien gurekin edota Ehiza Federazioarekin harremanetan jartzeke, elkarrekin lan egiteke eta baimendu behar diren postu eta lerroak finkatzeke.

Hilabete bat pasa ondoren, ez dugu inongo berririk jaso Larrauldik, eta ez zaigu inor azaldu antolaketa horretan lan egiteke prest. Hori dela eta, eskutitz honen bitartez jakinarazi nahi dizugu departamentua hasiko dela antolatzen Larraulgo eta inguruan dauden ehiza-postuak, datorren irailan postu horietara ohiko ehiza lerroak izendatzeke eta 2007ko urriaren 25eko Foru Agindua aplikatzeke hurrengo denboraldian.

Beraz, irailan ohiko pasabideak izendatzeke ditugun lerroetan ezingo da ehiza egin, baldin eta kudeatzen ez badira, Ehiza Federazioak duen antolaketaren barruan.

Aldi berean, zure laguntza eskatu nahi dizugu, berriro, informazio hori zure herriko ehiztarietara helarazteke eta euren laguntza eskatzeke, egin behar dugun lana elkarrekin egin dezagun.

Aldez aurretik, zure laguntza eskertuz, jaso ezazu gure agurrik beroena.

Mendi eta Natura inguruneke zuzendari nagusia.”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek , aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.-. Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneke eta Turismoko Departamentuak igorritako idatziaren berri herritarretara ematea, bando bitartez.

LAUGARREN PUNTUA

HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK IGORRITAKO IDATZIAREN BERRI EMATEA, HALA BADA


Ikusirik, Haurreskolak partzuergoak igorritako idatzia, non ondorengoak dioen:

“Jaun/andre agurgarria:

Zurekin harremanetan jartzen gara 2012ko maiatzaren izen-emate aldiaren ondoren haurreskolaren egoeraren berri emateke.

2012ko irailean haurreskolaren egoera ondorengoak izango da:

4 haur



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Horregatik, irailean Larraulgo haurreskola hurrengo baldintzetan irekiko dela jakinarazten dizugu:

-Haurreskola ez da 7 ordu baino gehiago irekiko, haurreskolan 4 haur edo gutxiago baino ez badira.

-Haur kopurua 3tik jaitsiko balitz Haurreskolak Partzuergoak haurreskolaren egoera berriz aztertuko du momentu horretan.

Edozein argibide edo eman ahal den edozein aldaketarako zure esanetara gaude. Adeitasunez,

Haurreskolak Partzuergoko Gerentea”

Gaia azterturik, batzarkideak, Haurreskolak partzuergoak igorritako idatziaren berri hartzen dute.

BOSTGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2012KO 1. ETA 2. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2012ko uztailaren 17an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2012 ekitaldiko 1 eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 13.000,00 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE


LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 13.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2012 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 13.000,00 eurotako gastua onartzea.

SEIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEARI 2. SEIHILABETEKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Mankomunitateak igorritako faktura, 2012ko ekainaren 21ekoa, 2012 ekitaldirako hiri hondakinen kudeaketa zerbitzuagatik, uztailetik abendura bitartean izango dena, Tolosaldea Mankomunitateari egin beharreko faktura ordainketa burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 8.896,63 euro direlarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Mankomunitateari, 2012/48 fakturaren ordainketa burutzea, hau da, 8.896,63 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 8.8896,63 eurotako gastua onestea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

GURE AMETSA 12-B ETXE ONDOAN TXABOLA BAT EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, E.A.O.

Gaia azterturik, batzarkideak aho batez erabakitzen dute gaia mahai gainean uztea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2011-2012 IKASTURTERAKO EUSKARA IKASTAROETAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA


Ikusirik Larraulgo Udalak 2012ko uztailaren 5ean ospatutako ohiko Udalbatzarrean 2011-2012 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusirik uztailaren 24arteko epea finkatu zela diru-laguntza hauen eskaerak egiteko.

Ikusirik epe horren barruan hainbat eskaera aurkeztu direla, onartutako 2, 3 eta 4 oinarriak betetzen dituztela, ondorengoak direlarik:

IZEN ABIZENAK	JARDUERA
I.S.G.	EUSKARA
F.A.O.	EUSKARA
P.P.S.	EUSKARA
J.G.A.	EUSKARA
A.N.L.	EUSKARA
M.A.R.	EUSKARA

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2011-2012 ikasterterako Larraulgo herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak onestea, diru-laguntza eskaturiko %100 izango delarik.

BIGARRENA.- Diru-laguntzak arautzen dituzten 8. oinarriak dioenari jarraiki onartutako diru-laguntzaren ordainketa egiteko xede diren ekintza egitasmo edo helburuak bete direla justifikatzen denean, horretarako gastua burutu izanaren faktura eta agiriak aurkeztu beharko dira.

HIRUGARRENA.- 2012 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

LARRAULGO ESKOLAN EGIN BEHAR DIREN HOBEKUNTZA LANEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2012ko uztailaren 4ko agindua, Unibertsitate eta ikerketako sailburuarena. Honen bidez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dituzten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantziazioa arautzen den (Udalaguntza-2012)

Ikusirik Larraulgo Eskolan beharrezkoa dela hainbat lan burutzea, zerbitzu egoki bat eman ahal izateko. Horretarako Eba Erkizia Brion Udal Aholkulari Teknikoak prestatu du “Larraulgo Eskolan hobekuntza lanak” izeneko memoria eta aurrekontu bat.

Ikusirik Larraulgo Udalak asmoa duela Larraulgo Eskolan egin behar dituen lanak finantzatu ahal izateko diru-laguntza eskaera egitea, Unibertsitate eta ikerketako sailburuak onarturiko 2012ko uztailaren 4ko aginduaren babesean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo


ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Eba Erkizia Brion Udal Arkitektoak prestatuturiko “Larraulgo Eskolan Hobekuntza lanak ” izeneko memoria eta aurrekontua onestea.

BIGARRENA.- Larraulgo Eskolan egin behar diren lanak burutzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2012ko uztailaren 4ko agindua, Unibertsitate eta ikerketako sailburuaren babesean. Honen bidez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dituzten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantziazioa arautzen den (Udalaguntza-2012).

HAMARGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IZENPE	82,12
IRATZE LORAZAINTZA	127,00
BERRI LANTEGIA	90,23
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	68,25
LAUKIDE	28,32
TOLOSALDEA GARATZEN	120,00
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	3.727,27
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	295,12
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	266,98
MOVISTAR	100,59
MOVISTAR	17,84
MOVISTAR	20,47
MOVISTAR	89,17
GASNATURAL FENOSA	162,30
REPSOL	16,57
REPSOL	65,09
EUSKALTEL	260,38

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **5.537,70** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**


Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez:

11.1.HERRIKO JAIETAN IRRATIAN PUBLIZIDADEA JARTZEKO ARRATE IRRATIA S.L. EGINIKO PROPOSAMENA

Ikusirik Arrate Irratia S.L.k aurkezturiko aurrekontua, non Larraulgo jaietan, “San Esteban eta San Bartolome”-tan, irratian egitarauak emititzeko hainbat proposamen aurkezten dituen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Arrate Irratia S.L.k aurkezturiko aurrekontua ez onartze, bertan Larraulgo Jaietan, irratian egitarauak emititzeko proposamenak aurkezten zituen.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Arrate Irratia S.L. ri ematea.

11.2. GOBERNUAREN ORDEZKARITZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOTIK IGORRITAKO ERREKERIMENDUAREN BERRI EMATEA.

Idazkari-Kontuhartzaile andreak batzarkideei jakinarazten die Gobernuaren Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegotik idatzi bat heldu dela, ondorengo diolarik:

“Se ha tenido conocimiento en esta Delegación del Gobierno de que en la fachada principal de ese Ayuntamiento no ondea la bandera de España.

El art. 3.1. de la Ley 39/1981 por la que se regula el uso de la bandera de España y el de otras banderas y enseñas dispone que la bandera de España deberá ondear en el exterior y ocupar el lugar preferente en el interior de todos los edificios y establecimientos de la Administración central, institucional, autonómica, provincial o insular y municipal del Estado.

El art. 4 de dicha ley indica que en las Comunidades Autónomas, cuyos Estatutos reconozcan una bandera propia, ésta se utilizará conjuntamente con la bandera de España en todos los edificios públicos civiles del ámbito territorial de aquella, en los términos de lo dispuesto en el art. 6 de la presente ley.


De conformidad con lo previsto en el art. 65 de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases de Régimen Local, le requiero para que en el plazo de un mes proceda a dar cumplimiento a lo previsto en la normativa citada.

EL DELEGADO DEL GOBIERNO”

Batzarkideak, Gobernuaren Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegotik igorritako idatziaren berri jasotzen dute.

11.3.DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 1. ZK. KO EPAITEGITIK IGORRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAREN BERRI EMATEA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak batzarkideei berri ematen die, Gobernuaren Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoak, 2012ko uztailaren 9an, Donostiako Administrazioarekiko auzien 1 zk. ko epaitegian, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri duela, Larraulgo Udalak ez duelako betetzen, Toki-Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko 1985/7 Legearen 56.1. artikulua dioena, non



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ondorengoa dioen:

“56.1. artikulua: Toki-erakundeek Udal Gobernu organoen erabaki edo akordioen fotokopia eta bere kasuan, laburpen ulergarria Gobernuaren Ordezkariordeztza honetara igotzearen betebeharra xedatzen du, berauek erabakitzen diren hurrengo sei egunen barnean. Udalbatzaren Idazkariak, berehala eta Alkateak edo Udalburuak, igorpen honen betekizunaren erantzule izango dira.”

Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuei jakitera ematen die, Aktak erderara itzuli bezain pronto bidaliko dituela eta, administrazioarekiko auzi-errekurtsoari erantzungo diola eskatuz eskaera bete denez, errekurtsoa bertan behera gelditu dadila.

Batzarkideak guztiaren berri hartzen dutelarik.

HAMABIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.55 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA